

9

EKAINAREN 9AN, OSTIRALA, GOLEM BAIONAN, 19:30EAN

Polaris

Ainara Verarena (Frantzia, Danimarka, Groenlandia, 2022, 78')

Golden Gentian saria film onenari Trentoko Zinema Jaialdiaren 71. edizioan.

Itsasontzi baten kapitaina izanda, Artikoko paisaia liluragarriak zeharkatzen ditu Hayatek, Frantziar izan zuen eta hartatik aldendu nahiago duen iraganetik urrun. Leila ahizpa, ordea, erditzeaz, eta Hayatek berriro planteatuko ditu bere familia-ioturak eta bere etorkizuna.

Ainara Vera. Iruñea, 1985. Ikus-entzunezko komunikazioa ikasi zuen Nafarroako Unibertsitatean, eta Sorkuntzako Dokumentalen Masterra Pompeu Fabra Unibertsitatean. Bere lehen film laburra, *Sertres*, Locarnon estreinatu zen, 2014an. Bere lehen film luzea, *Hasta mañana, si Dios quiere*, Horrez gain, proiektuen aholkularia da eta idazketa tailerreko tutorea, Pompeu Fabra Unibertsitateko Sorkuntzako Dokumentalen Masterrean.

Solasaldira gonbidatua: **Ainara Vera**, filmaren zuzendaria.



14

EKAINAREN 14AN, ASTEAZKENA, GOLEM BAIONAN, 11:00ETAN ETA 19:30EAN

La pecera

Glorimar Marrero Sánchezena (Puerto Rico, 2023, 92')

Malagako Zinemaldiko MAFIZ EAVE Saria eta Habanako Zinemaldiko Gidoi Berri Onenaren Saria

Bere minbizia zabaltzen doan neurrian, Noeliak Vieques uhartera, jaiolera, itzultzea eta bere patua erabakitze askatasuna erreklamatzera erabakiko du. Bertan, bere lagun eta senitartekoei AEBetako praktika militarrek utzitako kutsadurarekin borrokatzen jarraitzen dute.

Glorimar Marrero Sánchez. Zinemagilea eta arlo ugarietako artista da, eta bere lana doluarekin, identitatearekin, kolonialismoarekin eta generoarekin lotuta dago. *La pecera* bere lehen film luzea da.

Hitzaldira gonbidatua: **Vanina Vázquez**. Psikologoa, generoan eta psikoanalisian aditua. Euala Iniciativas enpresan genero-berdintasunean espezializatutako aholkularitza-enpresa gisa lan egiten du, erakunde publiko eta pribatuaren proiektuak garatuz.



14

EKAINAREN 14AN, ASTEAZKENA, GOLEM BAIONAN, 17:30EAN ETA 22:30EAN

Film laburrak femeninoan



Alegre y Olé, Clara Santaolayarena (Espainia, 2022, 19'). Lena eta Carmen osasun mentaleko zentro batean daude. Adinez aldea badute ere, oso harreman berezia da bien artekoa. Hala, enpatiarene eta ez epaitzearen bidez, beren erruak eta beldurrak gainditzea lortuko dute.

Anatomía Dunha Serea, Adriana Páramorena (Espainia, 2022, 14'). Erditzean ospitalean tratu desegokia izan eta baimena izan gabe egin zioten epistomia baten ondorioak pairatu ondoren, protagonistak epai-izapide bat hasi du Galiziako Osasun Zerbitzuaren aurka, eta antzerkian babes hartzen du biolentzia obsztrikoa ikusgai egiteko eta salatze.

Harta, Julia de Pazena (Espainia, 2022, 23'). Carmela, 12 urteko neskatua, aitarekin egotera behartuko dute bere urtebetetze-egunean, familiak elkartzeko zentro batean, amaren gaineko genero-indarkeriagatik epaiaren ondorioz.

Hondarrak, Paula Iglesias eta Marta Gómezena (Espainia, 2022, 15'). Beren bizitzetik lekurik uzten ez dieten aitortu gabeko lanak dituzten bi emakumeri buruzko kontakizuna da: Gladys, egoiliar gisa lan egiten du etxe batean; Ima, itsasoaren aurrean, beste ontzi batek bere sareak hautsi arte.

La Loca y el Feminista, Sandra Gallégoena (Espainia, 2022, 13'). Feminismoan aritzeak esan nahi duenaren eta, baita gizonen artean ere, modan jarri den hitz bati ematen diogun erabileraren gaineko hizketaldi bat. Bikote-hizketaldi bat, etxeko zereginen banaketa desberdinari buruz, eta gizonaren oharkabetasunari buruz, bere jarrerak benetan dakarrenaren gainean.



Selección realizada por TRAMA (Coordinadora de Muestras y Festivales de cine, vídeo y multimedia realizado por mujeres)

12

EKAINAREN 12AN, ASTELEHENA, GOLEM BAIONAN, 11:00ETAN ETA 19:30EAN

The happiest Man in the World

Teona Strugar Mitevskarena (Mazedonia, 2022, 100')

Vesna Sariak jantzien diseinu onenari, makillaje onenari, gutxiengo koprodukzio onenari Esloveniako Zinemaldian (2022).

Sarajevoko gerraren zauriak erakusten ditu oraindik ere, tokirik ezustekoenetan ikusten dira. Hala elkartuko dira, batetik, Asja, 40 urteko emakume bat, familia bat eratzeko aukera emango dion pertsona bat aurkitzeko asmoa duena, eta, bestetik, Zoltan, erruak zeharkatuta bizi den gizon bat.

Teona Strugar Mitevka, Ipar Mazedonia, 1974. Ibilbidea aktore lanetan hasi zuen, eta pinturako prestakuntza hartu zuen. 2001ean, bere lehen film laburra zuzendu zuen, Veta, eta geroztik zenbait film luze estreinatu ditu. *Dios es mujer y se llama Petrunya* lanarekin, Berlingo Epaimahaiaren saria eskuratu zuena.

Solasaldira gonbidatua: **Olatz Dañobeitia**, soziologian lizentziaduna eta gaur egun EHuko "Genero eta feminismo Ikerketak" doktoregoa amaitzen. Gatazka politiko-armatuak eta horien ondorioak genero-ikuspegitik eta ikuspegi feminis-tatik aztertzen ditu.



15

EKAINAREN 15EAN, OSTEGUNA, GOLEM BAIONAN, 11:00ETAN ETA 19:30EAN

Foudre


Carmen Jaquierrena (Suitza, 2022, 92')

Zuricheko zinemaldiko Suitzako talentu emergentearen saria (2022). Tesalonikako Zinemaldiko Women in Film and Television saria (2022). Busango Jaialdiko argazki epaimahaiaren sari berezia (2022)

1900eko uda, Suitza. Ahizpa zaharrenaren bat-bateko heriotzak etxera itzultzera behartuko du Elisabeth. Herriko arau zorrotzek itota, Elisabethek pixkana kontra egin beharko die, bere bizitza bizitzeko eskubidea betetzeko.

Carmen Jaquier (Geneva, Suitza, 1985). Genevako Arte Aplikatuaren Eskolan ikasi zuen eta Lausnako ECALeko zinema-sailean. *Le tombeau des filles* (2010) eta *Le bal des sirènes* (2011) film laburrak zuzendu ditu, besteak beste. *Foudre* bere lehen film luzea da.

Hitzaldira gonbidatua: **Pili Miqueo**. Filosofia eta Hezkuntza Zientzietako doktorea, generoan aditua. CASSYR Andraizeko sexu-hezitzailea. Sexualitateari, berdintasunari, indarkeriari, hazkunde pertsonalari eta tantrari buruzko tailerretako hezitzailea.



16

EKAINAREN 16AN, OSTIRALA, GOLEM BAIONAN, 11:00ETAN ETA 19:30EAN

Blue jean

Georgia Oakleyrena (Erresuma Batua, 2022, 97')

Aktore protagonista onenaren, bigarren mailako emakumezko aktore onenaren, gidoilari berri onenaren eta Britainiar Zinema Independentearren casting onenaren saria (2023). Veneziako Zinemaldiko Giornate Degli Autori Publikoaren Saria (2022), besteak beste.

Ingalaterra, 1988. Margaret Thatcherren gobernuak gayak eta lesbianak estigmatizatzen dituen Lege bat onartzeko zorian dago, eta, hala, Jean soinketako irakasleak bizimodu bikoitza bizi beharko du. Eskolara ikasle berri bat iristean ekarriko du Jeanen bizitza amildegiaren ertzean kokatzea.

Georgia Oakley. Gidoilaria eta zuzendaria da, eta nazioarteko jaialdi ugarietan aitortua (TriBeCa, Galway Film Fleadh, New Yorkeko Zinema Jaialdia), besteak beste, *Little Bird* (2017) izenburuekin eta *We Did Not Fall from the Sky* (2018) film labur dokumentalarekin. *Blue Jean* (2022) bere opera prima da.

Solasaldira gonbidatua: **Alicia Pano**. Ekintzaile transfeminista Zikutak eta Lu-matza bezalako taldeetan. Humanitateetan lizentziatua eta genero aditua, genero-gailetan eta LGTBQn esperientzia handia duena.



13

EKAINAREN 13AN, ASTEARTEA, GOLEM BAIONAN, 11:00ETAN

My way out


Izaskun Arandiarena (Espainia, 2022, 70')

Milton Keynes Film Festivaleko Dokumental Zuzendaritzarik Onena (2022). Epaimahaiaren aipamen berezia International Film Festival Singapore eta Seoul Independent Film Festival-en (2022). Doha Independent Film Festivalen dokumental luze onena (2023).

Izaskun Arandiak memoria berreskuratu eta The Way Out-en oraina ospatzen du. Londresko musika-klub bat da, hain zuzen, aitzindaria trans emakumei aisiarako eta dibertsiorako lokal seguru bat eskaintzeagatik. Elkarrizketen bidez, queer historiaren kapitulu ezinbesteko bat berreraiki du, eta trans esperientzien belaualdien arteko, kulturako eta bakarkako dibertsitateari buruzko panoramika bat eskaintzen du.

Izaskun Arandia. Tolosa, 1972. Erresuma Batuko zenbait ikus-entzunezko enpresatarako lan egin zuen. Hainbat film labur eta luze ekoitzi ditu, haien artean, *Muga deitzen da pausoa* eta *Non dago Mikel? Ni naiz naizena (I Am Who I Am)* websaila idatzi eta zuzendu ere egin du. *My Way Out* bere debuta da film luzeak zuzentzen.

Solasaldira gonbidatua: **Izaskun Arandia**, dokumentalaren zuzendaria.



13

EKAINAREN 13AN, ASTEARTEA, GOLEM BAIONAN, 18:00ETAN

De eso no hablábamos

Ángela Palaciosena (Espainia, 2019, 70')

1999az geroztik Ángelak isilpean gordetzen du galdera bat: zergatik amak ez zion agur esan? Familian ez du inork hitz egiten horretaz. 2012an, ordea, amaren heriotzaren inguruan beti egon den isiltasun ikaragarri hori ulertzeko bideari ekitea erabakiko du.

Ángela Palacios. Logroño, 1984. Lizentziaduna da Ikus-entzunezko Komunikazioan, Nazioarteko Lanikidetzako masterra egin zuen eta 2009an Bartzelonara lekualdatu zen, zuzendari-, dramagile- eta aktore-prestakuntza hartzeko Laboratorio Antzerki Esperimentaleko Eskolan, Jessica Walkerrek zuzentzen duenean. Han, sortzen ikasi zuen, bere egia aurkitzen eta ahalik eta zintzotasun handienarekin adierazten. *De eso no hablábamos*, zuzendari- eta gidoilari-lanetan egin duen lehen film luze dokumentala da.

Solasaldira gonbidatua: **Ángela Palacios**, filmaren zuzendaria.



13

EKAINAREN 13AN, ASTEARTEA, GOLEM BAIONAN, 20:00ETAN

Alteritats

Alba Cros, Nora Haddadena (Espainia, 2023, 90')


Andorrrako Ull Nu Zinemaldiko film luze onenaren saria (2023).

Dokumental honek jatorri eta egoera desberdinetako lesbianen ahotsa biltzen du, arau heterosexuala nagusi den mundu batean, disidentzia hori bizitzeak esan nahi duenaren inguruan beren esperientzien berri emateko.

Alba Cros. 2015ean, beste kide batekin, *Las amigas de Ágata* zuzendu zuen eta Gaudi sarietarako izendatu zuten. *Resiliencia* telebistarako dokumentala sinatu zuen. Argazkigintzako zuzendari ere aritu da Zaida Carmonaren *La amiga de mi amiga* lanean, besteak beste.

Nora Haddad. Bere arte-prozesuak soinu-sorkuntza eta gizarte-zientziak konbinatzen ditu, zenbait jaialditan instalazio eta performanceak programatu ditu, adibidez, Mixtur eta BAMen. Aldi berean, sonidista eta zinemako soinu-disinatzaile gisa espezializatu zen.

Solasaldira gonbidatuak: **Alba Cros** eta **Nora Haddad**, dokumentalaren zuzendariak eta **Sara Torres**, pentsalaria, poeta eta eleberrigile espainiarra. 'Lo que hay', eleberrigintzan egin duen debuta, arrakasta aparta izaten ari da kritikarien eta publikoaren artean.



ZINEMAREN ETA EMAKUMEEN
37. ERAKUSKETA INTERNAZIONALA
IRUÑEA 2023ko ekainaren 9tik 16ra

Colaboran/
Laguntzaileak



Organizan/
Antolatzaileak



Emanaldi guztiak

GOLEM BAIONAN

Izango dira

SAIOAREN PREZIOA: Goizak 5 €. Arratsaldeak 6 €. Sei saioetako bonua 30 €

www.fundacionipes.org/cineymujeres

www.golem.es